



Euskal herri feminista sortzera goaz!!
euskal herriko bilgune
feministaren barne
hausnarketaren ondorioak

Euskal herri feminista sortzera goaz!

Bilgune Feministaren hausnarketaren ondorioak

Euskal herriko bilgune feministak bost urteko ibilbidea egin ondoren hurrengo faserako zein izan behar duen bere lana aztertzen egon da azken bi hilabete hauetan. Hasteko egindako lanaren balantzea burutu egin genuen eta emakumeon egoera aztertuz hurrengo bost urteetarako helburuak eta lan ildoak defintu egin ditugu. Txosten honen helburua emandako eztabaidaren ondorioen aurkezpen bat izan nahi du.

1-Bost urteetako balantzea

Bost urte hauetako balantzearen ondorio nagusiak azpimarratzerakoan Bilgune Feministaren sorrerako filosofiaren perspektibatik egitea ezinbestekoa iruditzen zaigu.

Izaerari dagokionez, erakunde feminista gara. Oro har, bai hizkuntza, bai irudia, bai lan estiloan feminismoa dugu ardatza. Bestalde, sexuen arteko botere erlazioak gainditzea dugun helburua egunerokotasuneko jardueran presen dugu. Azkenik, emakume zapalduen bozgorailua izatea lortu ote dugun aztertu beharreko gakoa da.

EH-ko erakundea bilakatu eta nazio izaera lortzeko zailtasunak ditugu eta euskal feminismoa artikulatzeko eta dinamika feminista sendotzeko oinarri sendoak jarri ditugu. Aliantza feministaren dinamizatzaile bilakatu gara.

Plan estrategiko feminista ez dugu definitua, hutsune garrantzitsu bezala baloratzen dugu. Eremu ideologiko, politiko zein ekonomikoan aurkitzen diren egoerak nolabait ikustarazi eta salatu ditugu, planaren beharra sozializatuz, sektoreen dinamika propioen bidez proiektua ulertarazten ari gara.

Bestalde, lehenasunezko helburuak lortzeko duela bost urte harturiko KONPROMISOAK betetzen ari gara:

- Sexuen arteko botere erlazioak gainditu ditzagun proposamenak lantzeko baldintzak sortu ditugu.
- Eragile feministen arteko harremanak eta elkarlana bultzatu ditugu.
- Eragile politiko, sindikal eta sozial desberdinekin harreman zubiak ireki ditugu elkarlanerako eta konpromisoak eskatzeko.
- Egitasmo eta dinamika ezberdinen ondorioz, emakume zapalduaren inguruko kontzientzia indibidual eta kolektiboa piztu dugu.

Lan estilo feminista eta integratzailea sustatzeko baldintzak sortu ditugu. Bakoitzaren borondate eta aukeraren araberako partaidetza nolabait lortu da. Lan estilo berria sustatu nahi dugun heinean, dinamika eta bilakaeraren poderioz lortuko dugularik.

Kontzientzia kolektibo eta indibiduala aktibatzeke baldintzak sortu ditugu. Borroka ideologikoa garatzea dinamika ororen oinarria izan delarik. Borroka ezberdinak burutu, suspertu eta aktibatzeke lanak aurrera eramane ditugu. Oro har, dinamizazio lanak garatzea lortu da. Are gehiago, dinamika berria den erreferentea bihurtu gara.

BF-ren lan estiloa aurrera eramateko bi ERAGITEKO EREMU nagusi antolatu eta sendotu ditugu: Sektoreetako antolakuntza eta Herri / eskualde mailako antolakuntza. Azkenik, ekipo nazionala sortu eta sendotu egin da, kohesioan findu behar delarik.

Sarea, gure filosofiaren oinarrian dagoena, emakumeon arteko komunikazioa bermatuko duen tresna sortzeko eta elikatzeke zailtasunak daude. Gure proiektu politikoa aurrera eramateko ezinbesteko tresna den heinean eta behar bezala aktibatzeke ditugun zailtasunak oinarri hartuta, azpimarratu beharreko hutsune nagusia dugu.

Lan ildoetarako buruz aritzerakoan lehenik eta behin aipatu beharra dago, bere garaian aurreikusi genituen lan ildoez aparte, dinamikaren poderioz eta egoera politikoari egokituriko lan ildo berriak sortu behar izan ditugula.

Plan estrategikoaren aldeko lanean, lehen aipatu bezala, proiektuaren sozializazioa egin eta planaren lehentasunezko helburuen perspektiban agitzeko eta dinamika ezberdinak burutu ditugu, proiektua nolabait ulertaraziz.

Sektore estrategikoetan; hezkuntza, kultura eta komunikabideetan hainbat proiektu zehatz aurrera eramanez. Lehentasunezko helburuen perspektiban dinamika sortu dira, baita elkarlana ere. Bestalde, sozio-ekonomia sortu berria dugun sektorea da. Hutsune garrantzitsua suposatu badu ere, sektorea egituratzen ari da eta bere proposamen orokorra definitua du. Oro har, sektoreen lan ildoetan MF artikulatzeko zailtasunak daude. Bestalde, nazio eraikuntzan dabiltzan eragileekiko elkarlana eta lan ildoak sendotzen ari dira.

Emakumeon kontzientziazio lana dinamika guztietan oinarrian izan dugun helburua izan da. Aipatzekoa da, emakume gazteok osatutako eragilea gaitasuna eta honek beste adinetako emakumeengana heltzeko eragiten du.

Azaroak 25 eta martxoak 8a plangintza politikoaren baitako bi lan ildo nagusiak dira. Balantze orokorra egitea zaila bada ere, herrialde mailako mobilizazio eta manifestazioak gero eta jendetsuagoak dira. Honekin batera irakurketa propioak egiteko gaitasuna eta erreferentzialtasuna lortu da.

Eskubideen gutunaren ildoak azken urteetako lan ildo nagusia bilakatu da, eskubideen aldeko auzia dinamika ororen oinarria izanik. Egitasmoa denboran luzatzeak nekatu egin gaituen arren, gutuna adostu eta aurkeztuko da. Orain arte emakumeak aktibatzeke zailtasunak izan baditugu ere, aurrera begira borroka zehatzak eta emakumeengana heltzeko baldintza gehiago eta hobekiak izanen ditugu.

Gatazkaren konponbidearen ildoari dagokionez, EH-ko egoera politikoari ikuspegi feministaren erantzuna azken urteetako lan ildoak dira. Emakume abertzaleon III. Topaketek ildoaren abiapuntua eta oinarri sendoa jarri zuen. Ahotsak-ek MF-ri nolabaiteko erreferentzialtasuna kendu badio ere, ildoaren gaineko MF-ren artikulazioa eta aliantza lortu da.

Azkenik indarkeria lan ildo oso garrantzitsua izan da bost urte hauetan, mugimendu feministarekin landutako protokoloa sendotzea izan da gure lanaren ardatz nagusia. Oraindik prebentzioa ez dugu garatu eta sexuen arteko harreman berrien helburua lortzeko ezinbesteko ildoak dela adostu badugu ere, ez dugu lortu martxan jartzea.

Lan ildoak alde batera utzita, gure proiektua garatzeko harremanak lehentasun bezala kokatu ditugu. EH-ko mugimendu feministako eragileekiko komunikazioa, kontraste zubiak eta kidetasun harremanak landu dira. Mugimendu feministaren baitan erreferente bilakatu gara.

Eraldaketa sozialaren aldeko eragileekiko harremanak eta aliantza landu da. Harreman puntualak eta dinamika zehatzen gainekoak izan dira. Hortaz, harremanak iraunkortu egin behar dira.

Instituzioekiko harremanetan erreferentzia EAE-ko instituzioei begira lortu da. Nafarroan eta Ipar EH-an ez dugu erreferentzia hori lortu. Udalbiltzari begira zenbait auzi landu dira. Emakumeon eskubideen zaintzaren ildoak sendotu behar da.

BF sortu zenean eta bere proposamen orokorra zehaztu zenean Informazio Gunea, Ikerkuntza Zentroa eta Politika Institutuzionalen Behatoki Feminista lehentasunak baziren

euskal herriko bilgune feministaren barne hausnarketaren ondorioak

ere, BF-ren praktika politikoaren poderioz eta egoera politikoa oinarri hartuta euskal emakumeon beharrei erantzun ahal izateko beste ildoak lehenetsi ditugu. Hortaz, bost urte hauetan lehentasun izan ez diren arren, aurrera begira aztertu beharreko auzia da.

Antolakuntzari dagokionez, diruzaintzaren arloan bost urte ondoren gure diru sarrerak finkatu ditugu baina oraindik urrats oso inportanteak eman behar ditugu. Sarekideen planteamendua ez dugu bete, gure ditu iturri nagusitzat hartu bagenuen ere.

Komunikazioan taldea ez dago, baizik eta horren gaineko arduraduna. Emarau eta web gunea ez dira funtzionatzen ari. Prentsan nolabaiteko erreferentzialtasuna lortu da. Izan ere, gure estilo propioa sortu dugu. Diskurtso feminista eta diskurtso orokorra lantzeko eta gure iritzia kontutan izateko gaitasuna lortu da.

Bestalde, azkeneko urteetan formakuntza sendotu egin da. BF-ren beharrei eta ildo politikoari erantzuten dion ildoak bilakatzen ari da.

Antolakuntzarekin bukatzeko, dauzkagun bi eragiteko eremu nagusiak, sektoreak eta eskualdeak hain zuzen, orekatzea eta elkarren artean elikatzea lortu dugu. Bai sektoreek planteatu dituzten agitazio dinamika ezberdinen bidez, baita eskualdeen partetik irekitako ildo ezberdinen inguruko borroka eta dinamika propioekin.

Hala ere, urteetan gure helburua izan bada ere, ez dugu lortu nazio mailako erakundeak bilakatzea, nahiz eta zenbait kontaktu eta saiakera egon diren. Baionan badugu eragite gaitasuna, dagoen mugimendu feministaren indar korrelazioagatik, baina ez dugu belaunaldi berrien inplikazioa lortzen.

Euskal Herrian, Durangon, Algortan, Zornotzan, Bilbon, Arrasaten, Azpeitin, Zarautzen, Oreretan, Donostian, Tolosaldean, Gasteizen, Izarran, Baztanen, Leitzaldean, Sakanan, Lizarran, Tafallan eta Iruñean gaude, 18 eskualdeetan osotara. Oraindik orain, eskualde garrantzitsu batzuetan hutsuneak ditugu, pixkanaka kontaktuak, harremanak eta baldintzak sortzen ari garen arren. Gainera, egun ditugun talde motorrak nahiko egonkorak dira, nahiz eta zenbait tokitan blokeo egoeran egon. Hiriburuak, zerbait sendotu ditugu eta horrek BF-ren dinamika ere sendotzea ekarri du.

Bost urte lanean, bost urte borrokan, bost urte gure bizi-baldintzak eraldatzeko urratsak emanez. Lorpenak eta aurrerapausoak ugariak badira ere, euskal emakumeon egoera iraultzeko bide luzea dugu oraindik.

Eta hain zuzen ere gure egoera iraultzeko eta aurrera begirako lana zehazteko, nahiz eman beharreko urratsak definitzeko emakumeon egoeraren azterketa eta diagnosis aintzat hartzea ezinbestekotzat hartzen dugu.

2- Emakumeon eta Mugimendu Feministaren egoerari buruzko zertzelada batzuk

Sistema patriarkalaren existentzia, hau da, sexu zapalkuntzaren existentzia eta ondorioak begi-bistakoak dira. Euskal Herriko populazioaren erdia baino gehiago garen emakumeon egoeren arteko desberdintasunak egonda ere, esparru batzuetan aurrerapauso handiak emanda ere; lan, espazio eta pertsonen identitatea sexuaren arabera hierarkikoki banatzen dira oraindik gure herrian.

Euskal Herrian bizi garen emakume guztion eskubideen aitortza eta betetzea ez da ematen; hemen jaiotakoak zein kanpotik etorritakoak, langabetuak, esplotatuak, lesbianak, sakabanatu eta kartzelaratuak, txiroak, sexua ogibide dutenak, etxeoandreak, nekazari eta abeltzainak, gazteak, zaintzaileak, erasotu eta kolpatuak, pentsiodunak, sindikalistak, intsumisoak, artisauek, ekologistak, euskaltzale eta

feministak. Zerrenda luzea bada ere, emakume guztiok modu batean edo bestean eskubideen urraketa pairatzen dugu.

Bizi dugun zapalkuntza globala da, sexuen arteko botere-erlazioa eta, ondorioz, sexu bereizkeria bizitza eremu guztietan ematen da emakumeon eskubideen urraketa ekarriz. Eremu ekonomikoan, balore sozial desberdina duten ekoizteko eta ugaltzeko betebeharrak berezituak sexuen artean banatuz islatzen dira botere-erlazio horiek. Maila politikoan -eta boterea erabiltzeko era gisa- erabakiak hartzeko ahalmen berezituak egokitzen zaizkigu emakume eta gizonei. Eta maila ideologikoan, sozializazio prozesu zein bitarteko desberdinen bidez, identitate edo izateko era berezituak ezartzen dizkigute.

Espazio publiko eta pribatuaren arteko bereizketa erakundetuta dago, espazio bakoitzean burutzen diren lanek, pertsonen arteko harremanek eta eratzen diren identitateek balore eta onarpen berezituak dituzte. Gaur egungo sistemak norbanako itxaropen, aukera eta debeku sozial berezituak egokitzen dizkio sexu bakoitzari eta, ere berean, debeku kolektibo berezituak ere ezartzen dizkie emakumei eta gizonei. Sexuen arteko bereizketaren arabera eraikitako antolaketa sozialak beraz, bizirik dirau.

Emakumeok, aldarrikapen eta borroka latz eta historikoen ondorioz espazio publikora irten bagara ere -lan merkatuan sartuz, esparru politiko batzuk geureganatuz eta oinarritzko eskubideak legez onartuak izatea lortuz-, bigarren mailako herritar moduan aritzen gara, espazio publikoan diskriminazio egoeran bizi gara. Nahiz eta espazio publikoari dagokionez aldaketaren bat lortu izan, espazio pribatuan ez da aldaketarik eman: etxeko lanak, zaintze ardurak, familiaren sostengu animikoa eta abarrek emakumeon erantzukizuna izaten jarriaten dute. Eta espazio publikoan lortutako aldaketa horiek patriarkatuaren oinarriak diren identitatearen bereizketa, familiaren kontzeptio tradizionala, arau heterosexuala eta sexuaren arabeko lanaren banaketa eraldatu ez dituztenez, sexu-indarkeriak eta emakumeon partehartze sozialerako oztopoek bizirik dira. Herritartasun kontzeptua eremu publikoan oinarritua dago, eremu pribatu deitua modu berdinean baloratua ez den bitartean. Beraz, bigarren mailako herritarrak gara.

Emakumeenganako diskriminazioak jadanik bidezkoa ez den sistema neoliberalaren barnean ematen dira. Nahiz eta une honetan neoliberalismo patriarkalaren eragina Euskal Herrian oso agerikoa ez izan, emakumeon egoera larritzeko arriskua ukalezina da: pobrezia feminizazioa areagotu egin da, lan prekarioak emakumeengan du eragin gogorrena, kontsumorako objektu eta subjektu izaten dira, gure osasuna eta gorputza merkatuaren interesen arabera erabiltzen dira, ongizate-estatuaren ikurra izan diren zerbitzu publikoak etengabe ari dira pribatizatzen eta laguntza sozialak murrizten diren heinean emakumeon menpekotasun ekonomikoa areagotuko da. Pentsamendu bakarraren inposaketak ia ezinezko bihurtu du demokraziaren garapen praktikoa, gizonei tradizionalki egokitutako baloreen asimilazioa jendartean goren puntura heldu da.

Egoeraren deskripzioa egiterakoan ezin dugu indarkeria aipatu gabe geratu. Emakumeon kontrako indarkeriak sexuen arteko harreman hierarkikoak bizirik dirautela adierazten digute. Indarkeria modu estrukturalen ematen da, esparru guztietan; etxe barruan ematen dena larriena dela ere baieztatu daiteke, datuak honen adierazle dira. Erasotzaileen adin gaztea edota erasoetan erabiltzen den bortizkeria mailaren igoera elementu berri eta garrantzi handikotzat jotzen ditugu. Jai eta aisi eremuetan, ikastetxe eta gazte guneetan ematen ari den bortxaketa eta erasoen gorakada emakumeok espazio guztietan aske eta seguru ibiltzea oztopatzen ari da.

Egoera honen aurrean berriz, berdintasunaren jendartean bizi garela dirudi, "gauzak aldatzen ari diren sindromea"rekin bizi gara. Instituzioek abiatutako berdintasun politikak eta ezarritako tresna juridikoak ez dira eraginkorrak emakumeen bizi baldintzak hobetzeko, dituzten beharrak asetzeko eta, azken finean, emakumeen eskubideak aitortu eta gauzatzeko. Emakumeenganako praktika diskriminatzaileak sistema ekonomiko eta

euskal herriko bilgune feministaren barne hausnarketaren ondorioak

sozio-politikoaren akats edo "desdoitze" txikiak bailiren aurkezten dizkigu botereak. Emakumeon bizi baldintzen hobetzea instituzioek eta teknikariek egin beharreko doikuntzen bitartez etorriko dela konbentzitu nahi gaituzte. Aldaketa instituzionalak egon badira ere, ez dezagun ahaztu gaur egungo instituzioak patriarkatuaren zerbitzurako tresnak direla, beraz, ez dira berdintasunean oinarritutako Euskal Herria lortzeko giltza.

Tamalez, gure ustez behintzat, gero eta tolerantzia sozial gehiago dago sexu bereizkeriaren aurrean, normaltzat hartzen dugun errealitatea da. Honi lotuta matxismo gogor eta argiaren ordeaz akaso beste motako matxismoa ari gara bizitzen, emakumeenganako bortizkeria fisikorik agertzen ez duen "borondate oneko matxismoa" deritzona. Matxismo mota berri hau sotilago, heziagoa eta paternalista da, normaldua eta sozialki onartua dago, ez da matxismo tradizionala bezain erasokorra baina bestea baino hilgarriago izan daiteke beraren aurrean auto-defentsarako mekanismorik oraindik garatu ez dugulako.

Esan bezala, berdintasunaren aldeko leloa ia unibertuala bihurtu da baina honek ez du itzulpen praktikorik egitasmo eta dinamika sozial edo politikoetan: oraindik ere, eragile progresista askok garatzen duten praktikan eta proposatzen dituzten eredu sozialetan sexu berdintasuna isolatuki eta irudi publikoari begira planteatzen da edo aipatu gabe ere geratzen da. Sexu bereizkeriari aurre egitea, proiektu politiko baino oinarritzko printzipio demokratiko kontsideratu behar dugu. Sexuen arteko harreman bidezkorik gabe ez dago demokraziarik. Eragile politikoek emakumeon eskubideak oinarritzko eskubide gisa bere proiektu politiko orokorrean txertatzen ez dituzten bitartean, patriarkatuaren oinarriak nozitzen jarraituko dute eta, ondorioz, sexu bereizkeriaren irautean hartzen duten erantzukizuna onartu beharko lukete.

Bestetik, azken urte hauetan feminismoak zuen baloratze soziala gainbehera etorri da, berdintasun sindromeak eta generoaren diskurtsoak balore feministak alde batera utzi dituzte. Berdintasunaren eta generoaren diskurtso hegemonikoa politika neoliberalekin aliatu da, feminismo instituzionalaren asimilazioa eta eraginkortasun eza ekarriz. Ondorioz, emakumeok gure askapen prozesuan izan behar dugun aintzindarritza eta patriarkatuaren erasoan aurrean autonomoki antolatzeko izan dugun gaitasuna galtzen ari garelakoan gaude. Egoera honetan, jendartea ez mobilizatzeko bideak bilatzen dituen botereari, gure ustez, lagungarri gertatzen zaio instituzioak aldaketarako gakoa kontsideratzearen ideia.

Baina errealitate hau bizitzeak ez du, berez, emakumeon eskubideen aldeko borrokaren inguruko kontzientzia eta lan grinarik sortarazten. Horregatik, kontuan izan behar dugu gure inguruko emakumeen artean kontzientzia feminista pizteko egingo dugun lanak eta bultzatuko dugun dinamika feministaren eraginkortasunak soilik sorraraziko dutela benetako aldaketa sozial atzeraezina. Emakumeon eskubideak gauzatzeko planteatzen ditugun ekimen guztiak, jendartearen aldaketa globala lortzeko "errezeta" berean kokatu eta artikulatu beharko lituzke egungo mugimendu feministak eta emakumeak.

Mendeetan iraun duen zapalkuntza patriarkalari aurre egiten ari gara, badakigu sexuen arteko erlazio berriak sortzea eta emakumeon eskubideen aitortza eta betetzea ez direla egun batetik bestera etorriko. Hori lortzeko behar dugun kontzientzia maila eta inizatiba ez dira era eta erritmo berberekin emakume guztiengan piztuko, egin beharreko kontzientziazte lana eta feminismoaren balioztatzea ezinbesteko pausua dira.

Errealitatearen deskribapena egin ondoren Mugimendu Feministaren analisi txiki bat egin dugu, hurrengo faseari begirako helburuak plantetzerakoan gure osasuna zein den ere kontutan izan behar dugulako.

Feminismoa eta mugimendu feminista 70. hamarkadan sortu zen nagusiki Euskal Herrian; aurretik batik bat Ipar Euskal Herrian zenbait ekimen eta aldarrikapen atera baziren ere. Oso izaera ezberdinetako mugimendu eta taldeak izan eta sortu eta Europa mailan zeuden feminismoaren inguruko tendentzia ideologiko ezberdinak eragin handia

euskal herriko bilgune feministaren barne hausnarketaren ondorioak

izan arren, Euskal Herriko egoera politikoak eta herri zapaldu izaerak hasieratik eragina izan zuen mugimendu feministaren bilakaeran, zapalkuntza hirukoitzaren kontzeptua hasiera hasieratik emakumeon egoeraren inguruko azalpenerako kontzeptu bezala identifikatuz. Euskal feminismoaren sorrera beraz, Euskal Herrian mugimendu feminista sortu zen une berean koka genezake, nahiz eta urteekin sendotzea, talde izaera hartzea eta tendentzia ideologiko bezala garatzea lortu zen.

Dena dela, ezin uka dezakegu, beste hainbat teoria feministek ere gure herrian eragin handia izan zutela eta horrek ere bere bilakaera propioa izan zuela. Esan bezala, 70. hamarkadan sortu bazen ere, 80. hamarkadan sendotu zen mugimendu bezala, Euskal Herriko punta ezberdinetan emakume asanbladak eta emakumeon egoera ezberdinei aurre egiteko emakume taldeak sortuz. 80. hamarkada beraz, mugimenduaren hamarkada bero eta indartsuena bezala identifikatu beharrean aurkitzen gara, hor sortu baitziren asanbladak, taldeak... emakumeon egoeraren eta patriarkatuaren eraginaren inguruko gogoetak eta herri borroka.

Euskal herriko bilgune feminista, tradizio feminista guzti honen ondorio zuzena izan zen orain 5 urte eta gaur ere bada, nagusiki Euskal Feminismoaren bilgunea izatea lortu duelarik.

Bost urte hauetan, Mugimendu Feministako eragile ezberdinak izan ditugu bidelagun nagusiak, inportante eta preziatuena. Bost urte hauetan elkarrekin ikasi, hausnartu eta borrokatu dugu.

Hala ere, egun, feminismoa ez dago guk nahiko gurek bezain indartsu eta sendo. Euskal Herriko mugimendu feminista, ez dago horren ahaltsu, ez dauka beharko lukeen eragina. Feminismoa zentzu askotan instituzionalizatu egin da. Instituzioek, mugimendu feministaren diskurtsoa lapurtuta, haiek emakumeon egoera aldatuko dutenaren irakurketa emakumeongana zuzendu dute, modu horretan, emakumeon desaktibazioa, talde askoren desagertzea eta feminismoa eta borroka feministaren beharra kuestionatzea ekarri duelarik. Hainbat talde instituzionalizatuak daude. Haien jarduera nagusiki instituzioetara bideratzen dutelako, instituzioekiko dependentzia izugarria daukatelako eta gainera instituzioek bideratzen dituzten politiken baitan kokatzen direlako. Gainera urteak eman ditugu, lan oso sakabanatua egiten indar galtzea eraginez.

Hainbat talde jarduera asistentziala egitera behartuak egon dira, instituzioek egiten ez duten lana betez. Gaur egungo emakume talde asko emakumeei bideratutako jarduera hutsa dute. Hau da, haien eskaintza emakumei zuzendutako ekimenak burutzean datza. Guzti honek emakumeon mugimenduaren eraldaketarako borroka zailtzen du.

Hala ere, 80.hamarkadan sortu ziren zenbait talde berri egin dira, belaunaldi berriek parte hartzen dute, praktika gaurkotu dute. Egia da ere, gazteek talde berriak sortu dituztela, tendentzia berriak Euskal Herriratu dituztela eta lan egiteko eredu berriak ezagutu ditugula. Eragileetako emakumeak, nagusiki sindikatu etako emakumeak berebiziko lana egiten ari dira mugimendu feministaren mesedeetara, bai haien jarduera orokorrean feminismoa txertatuz, baita mugimenduari indarra eta eragiteko gaitasuna emanez. Gainera, urteetako sakabanaketa horrekin apurtuz, gai ezberdinen inguruko aliantzak sortu ditugu, hala nola, etorkizuneko borrokarako tresna berriak.

2000. urtean Mundu Martxa heldu zen Euskal Herrira, Mugimendu Feministarentzat bultzada suposatuko zuena. Koordinadora nazionala sortzeko indarrak jarri ziren eta herri mailako talde askok parte hartu zuten 2005eko Mundu Martxarako baldintza sendoak sortuz. Beraz, 2005. urteko Martxa antolatzeari begira plataforma nazionala sortu eta aliantza sendo batetik Mundu Martxaren antolaketa arrakastatsua ekarri zuen, baita Euskal Herriko Emakumeon Eskubideen Gutuna ere, etorkizuneko borrokarako tresna.

Hutsuneak hutsune eta oztopoak oztopo, egun Euskal Herrian, baldintza oso onak ditugu aurrera egiteko, Mugimendu Feminista eta feminismoaren beharra eremu guztietan txertatzeko. Datozen bost urteetan, bidelagun berdinak eta berriak espero ditu Euskal herriko bilgune feministak.

Hausnarketa honen harira, guztiekin lan egiteko, paktuak sortzeko, indarrak metatzeko eta borroka feminista guztiekin batera antolatzen jarraitzeko konpromisoa berretsi nahi dugu.

Bilgune feministak eta orohar Mugimendu Feministak egindako lana itzela izan da eta lan horri esker emakumeon egoera aldatzeko funtsezko urratsak eman ditugu. Dena dela, gure helburu estrategikoak lortzeko eta dagozkigun eskubideak bermatuak izateko aurrera begira sustatu beharreko borroka funtsezkoa da.

Hurrengo fasean emakumeon eskubideen aitortza eta ondoren betetzea, egin beharreko bidearen norabide nagusia da.

3- Helburuak

Bilgune feminista sortu genuenean hiru helburu estrategiko zehaztu genituen. Lehenengoa, emakumeon bizi-baldintzak hobetzea, duintasun eta independentzia ekonomikoa bermatu eta bizitzaren eremu guztietan pairatzen ditugun diskriminazioei aurre egitea; bigarrena, sexu-bereizkeriaren garapen historikoa, bere ondorioak eta gaur egun duen gauzatzeko era jendartean ezagutaraztea; eta azkenik, sexuen arteko bereizketa hierarkikoa gaindituko duten harreman pertsonal eta kolektiboak sortzea.

Hiru helburu hauek lortzeko bidean -bost urte hauetako balantzean jasotzen den bezala- aurrerapauso sendoak eman ditugu. Orain, eta hausnarketa honen ondorioz, helburu estrategiko hauek lortzeko bidean fase berri bati ekin nahi diogu, hurrengo bost urteetarako norabidea markatuko duena.

Hurrengo fasean hiru helburu nagusi zehaztu nahi ditugu:

- ◆ *Emakumeon eskubideen aldeko borroka antolatzea*: emakumeon eskubide formalak erreal bihurtzeko borroka, artikulatu eta antolatu behar dugu.
- ◆ *Emakumeok aktibatzea eskubideen aldeko borrokan*: adin, kolore eta ideologi guztietako emakumeak eskubideen aldeko borrokan aktibatu behar ditugu, bakoitzak bere esparrutik eta aliantzak sortuz. Emakumeok gure eskubideen borrokan aritu behar garen kontzientzia zabaldu behar dugu.
- ◆ *Mugimendu Feministaren barneko aliantza lortzea eskubideen aldeko borrokan*: Mugimendu Feministaren barneko aliantza eskubideen aldeko borrokan kokatu eta borrokarako paktuak sortu behar ditugu.

4- Eskubideen aldeko borroka

Emakumeon eskubideak aitortu behar dira eta eskubide hauek erreal bihurtzeko bidea egin behar dugu, hori da eskubideen aldeko borroka funtsa. Horretarako, ondoko atalean behin eta berriro errepikatuko dugun bezala, eskubide gutuna tresna bat izango da, borroka osoaren ardatz nagusia.

Eskubide gutunaren balioa ondoren sortuko diren eskubideen aitortza eta bermeari begirako dinamika errealean kokatzen da. Beraz herrietan, sektoreetan eta nazio mailan eskubide horien aldeko dinamika zehatzak sortu behar ditugu.

A- Eskubide gutuna

Emakumeon eskubideak idatzita ditugu konbentzio internazional ezberdinetan. Modu formalean onartua badaude ere errealak izateko neurriak ez dira martxan jartzen. Hau da, lehenengo eta behin, eskubide hauen aitortza behar dugu eta honekin batera betetzeko neurriak.

Eskubide gutunean dauden atalen artean, herritartasunaren kontzeptua ikuspegi feministatik eraikitzea ezinbesteko zeregin dugu emakumeon eskubideen aitortza eta betetzeari begira. Herritartasunaren kontzeptu berri bat eraiki nahi dugu, pertsonen zaintzaren eta heztearen ardura barne hartzen duena, "pribatu" deitzen zaion eta emakumeoi lotua izan den eremua kontutan hartuko duena. Orain arte ezkutuan egon diren eta onarpen sozialik ez duten pertsonen biziraupenerako ezinbesteko jardueri garrantzia eman eta izendatu nahiz berreskuratu nahi ditugu.

Herritartasun eskubideak birplanteatu nahi ditugu, ez gizonaren eta bere onuraren arabera, ezkutuan baina bizitzarako beharrezko diren jarduerak betetzen dituzten emakumeen arabera baizik.

Euskal Herriko Emakumeon Eskubide Gutuna idazteko prozesua amaitu dugu. Bi urte hauetan zehar lan egin ondoren, datozen urteetarako tresna izango den dokumentua bukatua dugula esan daiteke. Mugimendu Feministak adostua izateko, oraindik pausu batzuk eman beharko ditugu. Euskal Herriko emakume taldeek eta eragile feministak diren guztiek bere atxikimendua ematea lortu behar dugu.

Bi urtetako prozesu honetan herrietan aurkezpen eta eztabaidak burutu ditugu, emakume askok parte hartu dute, baina oraindik ere, sozializatzeko prozesuaren barruan emakumeak lehenetsia izan behar dira, gure eskubideen urraketa irudikatuz gutunarekin bat egin behar dute.

Inflexio puntu bezala Jardunaldi Feministak kokatu behar ditugu, emakumeen eta taldeen atxikimendua lortuta, eskubideen aldeko borrokaren beharra eta artikulatzea adostu behar dugu gure aliatuak izango diren talde feministekin. Jardunaldi Feministek bi helburu nagusi jarri dizkiegu: lehenengoa, mugimendu feministaren aliantza sendotzea eta, bestetik, eskubideen aldeko borroka datozen urteetako estrategia feministaren oinarri bihurtu. Horretarako gure funtzioa argia da: dinamizatze politikoa burutzea.

Emakume talde, eragile feminista eta emakumeok orokorrean, gutuna borroka eta lanerako tresna bezala kontsideratu behar dute eta, gutuna oinarri hartuta, dinamika ezberdinak antolatu beharko ditugu: alde batetik, kontzientziazte lana eginez eta bestetik, eskubideetatik eratorzen diren errebindikazio zehatzen inguruan dinamikak sortuz.

Euskal Herriko Emakumeon Eskubideen Gutuna emakumeon bizi baldintzak aldatzeko tresna izango da bere orokortasunean. Baina, gure diagnosi guztietan behin eta berriro baieztatzen dugun bezala, emakumeok bi egoera oso larri bizi ditugu: alde batetik, pobrezia eta prekarietatea eta bestetik, indarkeria sexista. Bi egoera hauek aldatzeko sortu behar diren dinamiken oinarri bihurtu behar dugu gutuna.

a) Eskubide gutuna eta Nazio eraikuntza

Estrategia feministak eskubideen aldeko borrokan oinarria izanik, Euskal Emakumeon Eskubide Gutuna lanerako tresna bezala kokatu dugu.

Euskal Herria egituratzeko eta Euskal Herriaren nahiz herritarron eskubideen bermerako sektore ezberdinetatik garatzen ari diren dinamikei begira Emakumeon Eskubide Gutuna tresna eraginkorra izango da. Herri estrategia garatzeko egun dauden bi subjektu

euskal herriko bilgune feministaren barne hausnarketaren ondorioak

nagusietan, hots, Nazio Eztabaida Gunean eta Udalbiltzan ikuspegi integral batetik gutuna barneratu eta eskubideak bermatzeko eta gauzatzeko urratsak eman behar dira, sektore ezberdinetan eraginez.

Bestalde, Euskal Herriaren eskubideen aldeko herri dinamiketan, nazio eta lokal mailan sustatzen diren sektoreetako dinamika eta egitasmoetan, emakumeen eskubideak aintzat hartzea ezinbestekoa da. Euskal Herriaren luze eta zabalean sustatzen den eskubideen aldeko herri dinamikan ere gutuna eta bertatik eratortzen diren aldarrikapen zehatzak elkarlaneko tresna izanen dira.

Gutuna, batetik, emakumeon eskubideak aintzat hartu eta haien borroketan integratzeko; baina, bestetik, nazio eraikuntzan dauden eragileen eta mugimendu feministaren arteko elkarlana sustatzeko tresna ere izango da. Finean, Mugimendu Feministaren eta nazio eraikuntzaren perspektiban sustatzen diren egitasmoen arteko aliantzak (nazionalak nahiz lokalak) erdiesteko tresna izan behar du gutunak.

Euskal Herriaren nazio eraikuntzan emakumeon eskubideen borroka espezifikoki eta arlo guztietan landuz pausuak emango ditugu eskubide hauen aitortza eta bermerako bidean.

b) Eskubide gutuna eta instituzioak

Eskubide gutuna emakumeon artean adostu ondoren, instituzioei begirako lana egin beharko dugu. Instituzio guztietan gutuna onartu beharko dute eta tresna bezala erabili, sortzen diren berdintasun politika guztietan.

Instituzioei begira, hurrengo fasean interpelazio dinamikarekin hasita aitortzeari eta betetzeari begirako urratsak eman behar ditugu. Hasieran, aurkezpenak burutuko ditugu, eta ondoren, gutunarekin interpelazio dinamika bat sortu beharko dugu.

Gaur egungo instituzioen artean Udalbiltzak garrantzi berezia izango du. Euskal Herria egituratze bidean instituzio nazional bakarra izanik, gure erreferentzia nagusia izango da Euskal Herri osoko emakumeon errealitatea aldatzea helburu dugulako. Halaber, Udalbiltzaren eskubideen zaintzarako funtzio instituzionala oinarri hartuta, emakumeon eskubideen urraketen azterketa berritzeko funtsezko tresna da. Bestalde, udalak dira parekidetasunari begira lokal mailako politiken bitartez lan txukun bat egin dezaketanak. Berdintasun planak eta emakumeon kontseiluak ditugu hainbat herrietan eta gure balorazioan hutsune handiak zituztela esaten genuen. Gutuna oinarri bezala hartuta eta eskubideen bermea lortzeko politikak sortuz, udaletxeekin gure elkarlana parametro hauetan koka dezakegu.

Zaila izango da instituzioen aldetik onarpena lortzea, beraz, gutuna bi zentzutan erabiliko dugu: alde batetik, elkarlanaren ikuspuntutik bertan dauden teknikari eta emakume guztiekin eta, bestetik, agitazio dinamikak antolatzeko instituzioen kontra.

B- Emakumeon eta Mugimendu Feministaren aktibazioa eta antolakuntza

a) Emakumeak

Eskubideen aldeko borroka artikulatzeari begira subjektu nagusia emakumeak gara. Gu izango gara borrokaren motore, nahiz eta jendarte osoaren inplikazioa ezinbestekoa izan.

Berdintasun formalaren garaian bizi garenez, emakumeon kontzientziatze lana gure borrokaren elementurik garrantzitsuenetarikoa da. Adin desberdinetako emakumeek feminismoari buruzko pertzepzio desberdinak dituzte eta sistema patriarkalak eragiten duen zapalkuntzaren kontzientzia galtzen ari da.

Emakume gazteek berdintasunaren garaian bizi garen pertzepzioa dute, eskubide eta aukera berdintasuna jendartean errealtate bat dela behin eta berriro saltzen digutelako.

Emakume etorkinen kolektiboa sektore oso zapalduta izateaz aparte, bakoitzak bere herrian modu ezberdinetan bizi izan ditu patriarkatuaren ondorioak. Kultura ezberdinetan era ezberdinetan baloratuak dira emakumeak eta hortik eratortzen diren ohiturak aztertzen baditugu, etorkinen egoeraren bi ezaugarri nagusi ondorioztatu daitezke: alde batetik, emakume etorkinen artean ematen den kultura-aniztasuna eta, bestetik, emakume etorkinak bizi duten egoera prekariora. Emakume etorkinen artean ezberdintasun ugari aurki ditzakegu, baina emakumeon eskubideen alde borrokatzeko grina da nagusi.

Emakumeon adin ezberdintasuna eta kolektibo espezifikoak kontutan izaten baditugu, egoeraren bi ezaugarri nagusi bereiz daitezke:

- ◆ Patriarkatuaren ondorioz sufritzen dugun zapalkuntzaren gaineko kontzientzia falta.
- ◆ Feminismoaren desideologizazioa eta gutxiespena.

Honi aurre egiteko emakumeon kontzientziazte lana fase honen oinarri bat izango da. Kontzientziazte lana eta borroka ideologikoa eskubideen aldeko borrokaaren atal oso garrantzitsua izango da. Emakumeon arteko aliantza sortu behar dugu gure eskubideen aitortza eta bermerako neurriak eskatu eta borrokatzeko helburuarekin.

Ondorioz, emakumeok antolakuntza beharrezkoa dugula sinistu eta aurrera eraman behar dugu. Horretarako emakumeak feminismoaren baloreetan kontzientziatu behar ditugu eta eskubideen urraketa erreala irudikatuz borroka ideologikoa burutu. Emakume guztien aliantza ahalbidetzeko duen oinarri sendoa gure estrategia bide horretan kokatuz lortuko dugu.

b) Mugimendu Feminista

Mugimendu Feministaren osasunaren inguruko txostena abiapuntutzat hartuta, eskubideen borrokan bidai lagunak izanda hainbat elementu kontutan izan eta gure helburua betetzeko estrategia bat diseinatu behar dugu.

Atomizatzea apurtu eta taldeen arteko aliantza bultzatu behar dugu. Eskubide gutunari begira, diseinu fasean aliantza sendo bat egon da Asanblada, Plazandreek eta sindikatu batzuen artean, Hazparneko Emazteek Diote taldearen inplikazioa oso ezberdina izan da prozesu guztian zehar. Mundu Martxaren inguruan sortu genuen aliantza nazionala izan da. Orain, prozesua ia bukatua dugunean aliantza hau mantentzeko eskubideen aldeko dinamika espezifikoa sortzea izango da bidea.

Prozesua luzea izan denez emakume talde asko bazter geratu dira bidean. Gutunaren zirriborroa bukatua dugunean talde guzti hauen atxikimendua bilatu behar dugu, gutunaren baliagarritasuna indartzeko eta sortu genuen aliantza berreskuratzeko.

Jardunaldi Feministen inguruan aliantza nazional hori indartzeko aukera dugu, beste talde batzuk ere inplikatuko direlako. Mundu martxaren testuinguruan 2010ean mundu mailako ekimena egingo denez, berriro ere plataformaren indarra izango dugu. Bi ekimen hauek kontutan izan behar ditugu eta eskubideen aldeko borrokan kokatu behar dira. Horretarako, gure funtzio nagusia aliantza orokorretik hasita taldez talde elkarlana bultzatzea izango da, fase honetan ezinbestekoa da dinamizazio lana.

Aliantza nazionala horretan kokatzen badugu ere, herrietan eman daitekeen elkarlan lokala da fase honetako oinarri garrantzitsua. Herrietan dinamika zehatzak sortuz gurekin batera kalera eraman behar ditugu talde guztiak; horretarako, bakoitzarekin izan dezakegun elkarlana aztertu beharko dugu.

euskal herriko bilgune feministaren barne hausnarketaren ondorioak

c) Eragileetako emakumeak

Emakume guztien aliantzari buruz hitz egiten dugunean eragiletako emakumeak gure bidai lagun bezala ere kontsideratu behar ditugu. Bilgune feministak bi espazioetan kokatzen du eragiletako emakumeekin egin beharreko lana:

Alde batetik, Mugimendu Feministaren aliantzaren inguruko erreferentzia egiten dugunean kontutan izan behar dugu azken urteetan sindikatuetao emakumeek, eragile mistoetako arloek eta alderdietako emakumeek koordinadora feministetan parte hartzen dutela eta ez bakarrik talde feminista autonomoek. Beraz, eragiletako emakume feministek gurekin parte hartzen dute Mugimendu Feministak sortu dituen espazio ezberdinetan. Aliantzaren parte aktiboa dira.

Bestetik, emakume feminista hauek bere erakundearen egunerokotasunean zeharka landu behar dute emakumeon eskubideen aldeko borroka. Bilgune feministaren lan estiloa definitu genuenean eragiletako emakumeekin aliantzak sortu eta elkarlana sustatu nahi genuen, bakoitzak bere lan eremutik emakumeon eskubideen aldeko borroka artikulatzeko.

Lehen aipatu bezala, fase honetan gure bidai lagunak direla esaten dugunean bi zentzuetan planteatzen dugu, batetik, mugimendu feministako aliantza markoetan parte hartzen dutelako eragile bezala eta bestetik, bakoitza bere etxean egin beharreko etxeko lanekin arduratzen delako.

C- Emakumeon eskubideen aitortza eta bermerako tresna.

Emakumeon eskubideen borrokaren artikulazioan orain arte eskubide gutuna eta emakumeon aliantza aipatu ditugu. Eskubideen aitortza eta bermerako sortuko dugun tresna bermatzailea izango da.

Emakumeon aliantzatik sortuko den borrokarako beste tresna izango da. Nahiz eta fase honetan oinarriak jarriko ditugun ezaugarri batzuk definitzen saiatu gara.

Izaeraren aldetik Euskal Herri osoko emakumeen errealitateetik abiatuko da, Euskal Herri osoko emakumeentzako tresna izango delarik. Emakumeon eskubideen aldeko lana egingo du, hau da, feminista izango da. Azkenik errekonozimendu politikoa, soziala eta juridikoa izango du.

Emakumeon eskubideen urraketaren behatokia eta bermerako neurriak diseinatuko ditu. Instituzio izaera emanik gure herrian dauden beste instituzioekin elkarlana burutuko du, begirale funtzioa ere beteko duelarik. Emakumeen kontzientziaztea bultzatuz emandako funtzio guztiak bete ahal izango ditu.

Horrelako tresna bat Mugimendu Feministaren aliantzatik emango diren eztabaidak eta dinamikak diseinatu eta definituko ditu. Emakumez osatua eta emakume guztien onarpenaz izatea ezinbetesko ezaugarria da.

Beste instituzioentzako erreferentzia izateaz aparte, elkarlana sustatu eta interpelazioa ere egingo du. Oraindik zehaztu beharko genuke bere kokalekua, gaur egun dauden instituzioak eta sortu daitezken instituzioak kontutan izanik.

Izaera eta funtzioen arabera, Udalbiltzarekiko harremana eta elkarlana oso estua izango da, aztertu beharko dugu bien arteko lotura. Eta nazio eraikuntzarako tresna izanik, estrategia horretan nola kokatuko den aztertu beharko dugu.

Ondorioz, Bilgune feministak oraindi izena jarri ez diogun tresna hau sortzeko dinamizazio lana egin eta motorea izan beharko du. Azken finean, eskubideen aldeko borrokan gure papera hori izango baita.

4- Bilgune feministaren proiektua: Plan estrategikoa

Aurreko atalean hurrengo bost urteko lanaren definizioa egiten ahalegindu gara. Baina Bilgune feministaren proiektu politikoak Euskal Herri feminista sortzea du helburu eta horretarako, behin eta berriro aipatu dugun Plan estrategikoa diseinatzea da bidea. Azken bost urte hauetan plan horren oinarriak jartzen saiatu gara sektoreetan proiektuak sortuz; estilo liburua, hezkuntzako minimoen taula... Orain gure lehentasuna eskubideen aldeko borrokaren artikulazioa da, bide honetan Plan estrategikoaren definizioa egitea ez da ditugun lan guztien artean kokatzen; eskubideen aldeko borroka bera, Planari begirako oinarria baita, eskubideen aldeko borrokak Plan estrategikoari gorputza emateko, edukiz betetzeko balio behar digu.

Hau esan ondoren atal hau sartzea planteatu genuen gure norabidea zein den argi izan dezagun eta planaren definizioa bergogoratzeko. Gure sorkuntzan onartu genuen proposamen orokorrean zegoena berreskuratu egin dugu.

Sexu parekidetasuna sortzeko proiektu feminista global bat behar da. Globala eta integrala den sexu bereizkeriari irtenbidea emango dion proiektua hain zuzen. Arazo desberdinei ematen dizkiegun erantzunak aldaketa soziala bultzatuko duen proiektu global baten barnean kokatuko dituen Plan integrala. Erantzun partzialak eraginkorrak baitira soilik sexu bereizkeriaren zutoinak aldatzera joango den plan feminista orokor baten barnean osagarri badira.

Euskal Herrirako Plan Estrategiko Feministaren ezaugarriak

Gure ustez, Euskal Herrirako Plan Estrategiko Feministak honako ezaugarri hauek izan beharko lituzke:

- *Emakumeon errealitatearen gaineko diagnostiko batetik abiatuko den plana izan behar da:* diagnostiko orokorra (non gauden eta norantz goaz) baina era berean zehatza (urgentziazko arazoak eta zapalkuntza mantentzen dituzten mekanismoak detektatzea, emakumeen arteko desberdintasunak...) egin behar da. Diagnostiko fidagarria egin ahal izateko, sexuaren aldagaia eta Euskal Herri osoko errealitatea barne hartzen dituzten estatistiken elaborazioa bermatu beharko lituzkete instituzio desberdinek.

- *Feminismotik abiatuko den plana izan behar da:* eremu publiko eta pribatuan ematen diren sexuen arteko botere erlazioak gainditzera zuzenduta egon behar du. Plan hori diseinatzeko erabiliko diren kontzeptuak eta prozedurak ez dira eredu androzentrikoetan oinarrituta egon behar. Plana beraren definizioa zein gauzapena emakumeon protagonismoarekin burutu behar da.

- *Euskal Herria abiapuntutzat hartuko duen plana izan behar da:* Euskal Herri osoko arlo eta eremu zehatzetan gauzatuko den plana denez, tokian tokiko ezaugarrien araberrako irakurketa burutu beharko du. Eta azterketa zehatz horiek Euskal Herri osoan benetako aldaketa gerta dadin artikulatzeko beharra aurreikusi beharko du plan feminista horrek.

- *Planak estrukturala izan behar du:* gaur egungo egoeraren aurrean estrukturala, eta ez behin-behinekoa izango den alternatiba eskaini behar du, sexu bereizketaren muinera joz, sexuen arteko harreman askeetan eta justizia sozialean oinarritutako antolaketa soziala sortzeko plana izanik.

- *Plan integrala*: sexu bereizketak leku eta eremu bakoitzean ondorio eta forma zehatzak izanda ere, guztiak iturburu beretik sortzen dira. Honen aurrean planak zehar lerro gisa aldi bereko eragina izan beharko du eremu ekonomiko, sozial, politiko eta ideologikoetan.

- *Plan eraginkorra*: emakumeon egoera benetan aldatzeko presio mekanismoak, asmatu, proposatu eta erabiliko dituen plana izan behar da. Presio mekanismo horiek orokorrak zein berezituak izan beharko lirateke eraginkortasuna eremu guztietan bermatu ahal izateko.

Euskal Herrirako Plan Estrategiko Feministaren lehentasunezko helburuak

Gure ustez, gaurtik has gaitezke emakumeontzako errealitate berri bat sortzen, sexuen arteko harreman bidezkoak eratzen. Plan Feminista honek hiru lehentasunezko helburu izan beharko lituzke: batetik, *emakumeon bizi-baldintzak hobetzea*; bestetik, *identitate kolektibo eta indibidualetan eragitea* eta azkenik, *zapalkuntzaren izaera objektibo eta orokorra sozializatzea*.

1. Emakumeon bizi-baldintzak hobetzea. Duintasun eta independentzia ekonomikoa bermatu eta bizitzaren eremu guztietan pairatzen ditugun diskriminazioei aurre egitea.

- Emakumeon independentzia ekonomikoa erabakitzeko ahalmena eta autonomia bermatzen dituen oinarrizko baldintza da.
- Eremu pribatuan egiten den eta egin den lanaren onarpen soziala emakumearen ongizate eta auto-estimurako beharrezkoa da.
- Emakume multzo handiek dituzten bizi-baldintza larriak gainditzea urgentea da.
- Eremu guztietan bizi ditugun diskriminazioak gainditzea oinarrizko eskubide demokratikoa izateaz gain, bizitza duina izateko oinarria da.

2. Sexu-bereizkeriaren garapen historikoa, bere ondorioak eta gaur egun duen gauzatzeko era jendartean ezagutaraztea.

- Patriarkatuaren logika historikoa, patriarkatuaren existentzia objektiboa onartzea eta patriarkatuaren aurrean dauden proiektu politiko desberdinak, jendarte osoak emakumearen egoerari buruzko kontzientzia hartu ahal izateko ezagutu beharreko oinarrizko edukiak dira.
- Patriarkatuak lortu duen oinarrizko eduki horien desitxuratzea gainditu behar dugu. Patriarkatuak munduan zehar eta Euskal Herrian izan duen bilakaera, gaur egun bizirauteko dituen mekanismoak, nazioarteko eta hemengo Mugimendu Feministaren borrokak, antolatze erak, planteamendu teorikoak, proposamenak eta abar ezagutu beharko lituzke jendarteak.
- Oinarrizko eduki hauek argituz, emakumeon zein gizonen memoria kolektiboa eta sexu bereizkeriaren inguruko kontzientzia indartuko dugulakoan gaude. Oinarrizko eduki horiek ez desitxuratzea eta jendartean ezagutaraztea edozein eragile publikorentzat derrigorrezkoa izan beharko luke.

3. Sexuen arteko bereizketa hierarkikoa gaindituko duten harreman pertsonal eta kolektiboak sortzea.

- Irakaskuntza, kultura eta komunikabideak jendartea eraldatzeko bitartekoak bihurtu behar dira.

euskal herriko bilgune feministaren barne hausnarketaren ondorioak

- Balore ekonomiko, sozial ala politikoa duten jarduteko, pentsatzeko eta izateko era gehienak (positiboak direnak, garapen pertsonal zein kolektiborako eraginkorrak direnak...) maskulinitasarekin erlazionatzen dira oraindik. "Berdintasuna"ren jendarteak bere burua maskulino bihurtu du. Ondorioz, gaur egun, gizon maskulino, emakume femenino (gizonaren ikuspuntutik definitua) ala emakume maskulinoa ("super woman") besterik ezin dugu izan. Gero eta homogeneoagoak diren eredu horien aurrean beste identitate batzuek duten lekua oso txikia eta marjinala da.
- Beraz identitate kolektibo eta indibidual berriak asmatzeko eta eratzeko bidean, gaur egungo ereduak sortarazten dituzten kalteak, bultzatzen dituzten bizitzeko ereduak helburu eta baloreak agerian utzi behar ditugu.
- Horrekin batera, nagusiak diren ereduak aurrean gainontzekoak izan behar duten askatasuna bermatu behar ditugu.

5-Antolakuntza

Aurrera begira egin ditugun hausnarketekin bukatzeko, behar dugun antolakuntza zein izango den aztertu behar dugu. Orain dela bost urte gure antolakuntza definitu genuen, orain fase honi begirako hausnarketatik abiatuz definitutakoa errebisatu behar dugu.

Bilgune feministaren oinarriko antolakuntza bezala Sarea definitu genuen. Eskubideen aldeko borrokaren artikulazioan eta aurreko ataletan diseinatzen saiatu gara kontutan izaten badugu, Sare feminista sortzeak ahalbidetuko du helburuak betetzea.

Emakumeon arteko aliantza borrokaren oinarria izango den neurrian, bakoitzak bere esparrutik borrokatzeko, sarea osatzeak borrokaren orokortasuna irudikatuko du eta eskubideen aldeko dinamika nazionala sortuko.

Eragile feministak sortzeko tresna eraginkorra izan dadin, sarearen definizioan aurrerapausoak eman behar ditugu, orain arte zailtasun handiak izan ditugulako sarearen irudikapena egiterakoan.

Gure proiektua aurrera eramateko ezinbesteko tresna bezala definitu genuen, orain, emakumeon eskubideen borrokan gure proiektu estrategikoa, Plana, garatzeko bidai lagun nagusiak izango dira sarean parte hartzen duten emakumeak.

Sarea bilgune feministarekin bat egiten duten emakumeek osatuko dute. Sarean konpromiso ezberdinak dituzten emakumeak egongo dira. Sare hurbilean bilgunearekin elkarlana zuzena egiten dutenak izango dira, gure proiektuaren eragileak, bakoitzak bere esparrutik eta bere lan eremutik.

Maila eta konpromiso ezberdinak egongo direla baieztatzen dugunean sarean mota askotako eragile feministak barne hartu nahi ditugula esan nahi dugu. Batzuek sare hurbilean kokatuz lan zuzena egingo dute, beste batzuek gure dinamikan parte hartuz eta beste batzuek bere ekarpen ideologikoa emanaz.

Ezin dugu ahaztu Sarearen bitartez bilgune feministaren sostengu ekonomikoa sortu nahi dugula.

Laburbilduz, gure bide honetako motoreren atal inportante bat Sarea izango dela zehaztu dugu eta, zailtasunak izan ditugula ahaztu gabe, gure lehentasuna sare hori nola sortu izango da.

Harremanak beste ardatz bat izango dira aliantza eraikitzeko. Bost urte hauetan egindako harremanak baloratu ditugunean hutsuneak aurkitu baditugu ere, balorazio positiboa egin dugu.

Hiru mailetan kokatzen ditugu gure harremanak eta hauen izaera:

- o *Mugimendu feminista*: gure bidai lagun nagusiak. Plataforma nazionalen bitartez marko komunak izateaz gain, talde guztiekin komunikazio zubiak eraiki behar ditugu, analisiak konpartitzeko eta borroketan inplikazioa lantzeko.
- o *Eragileak*: elkarlana nazio eraikuntzan dauden eragileekin, beste eragileekin eskubideen aldeko borrokan urratsak emanez bakoitzak bere proiektuan integratua duen neurrian. Feministak ez diren eragileekin dinamika zehatzak antolatuz eskubideen aldeko lana egitea lortuko dugu.
- o *Instituzioak*: alde batetik, haiekin elkarlana eskubideen dinamikan eta bestetik, interpelazioa bere egiteko beharra betetzen ez duten neurrian. Momentu honetan Ipar Euskal Herriko eta Nafarroako instituzioekin aurrerapausoak eman beharko ditugu.

Bilgune feministaren barne antolakuntza aztertzerakoan orain arte jarri ditugun bitartekoak baliagarriak direla baieztatu behar dugu. Herrietan lan taldeak eta sarea, sektoreetan berdin eta nazio mailan ere bai.

Herrietan bete beharreko funtzioak eta antolaketa ez ditugu ezbaian jarriko. Lan talde dinamizatzailea, sare hurbila eta sare zabala eskubideen aldeko borroka herrian antolatzeko tresnak dira.

Sektoreetan ekipo dinamizatzaileak eta sare hurbilak proiektuak garatuko dituzte. Herriekin komunikazio eta elkarlanaren bidez eskubideen aldeko dinamikak sortuko ditugu sektoretan.

Nazio mailan, euskal emakume guztien eskubideen aldeko borroka artikulatzen ari garela irudikatuko dugu, lehenengo asignatura benetako erakunde nazionala sortzea izango da, Ipar Euskal Herrian bilgunearen taldea eta sarea sortu behar ditugu.

Nazio mailako estrategia herrietan, sektoreetan eta, orokorrean, sortzen ditugun dinamiketan kokatzen da. Ekipo nazionala sendotu eta kohesionatu behar dugu.

Bukatzeko, atal honetan ez ditugu aipatuko marko bakoitzean egon behar diren ardurak, ondo definituta daudelako eta planteamendua baliagarria delako. Baina berriro azpimarratu behar dugu SAREA dela fase honetan ezinbesteko tresna emakumeon aktibazioan, eskubideen aldeko borrokan, eta sortuko ditugun aliantza eta harremanak ahalbideratuko dituelako.

Lana handia izango da, bidea guztion artean adostu behar dugu eta ezinbestekoak ditugun tresnak sortu eta garatuko ditugu euskal emakumeon eskubideen alde.

2007ko Apirilaren 21a